

Indartuta dator hilaren 22an izango dan Zeberiometal jaialdia

13. orrialdea

Oskar Garro txirrindulariak bota dau Igorreko jaietako txupina

MC2 kalifikazinoko egokitutako txirrindularitzan Euskal Herriko txapel bi ditu eta Espainiako Txapelketea, euskal selekzioagaz hirutan irabazi dau pistan. Aurten ez da bizikletara igon, ebakuntzea egin deuselako hanke-tan. Osatutakoan Munduko Txapelketan parte hartu gura dau. 11. orrialdea



Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea Ilgoran deituko da

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

320

2019ko bagilaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Herriko jaien sasoi bete-betea



Bagilaren bigarren hamabostaldian, Bedia, Ubide, Arantzazu eta Dimako jaiak dira. Bedian eta Ubiden, sanjuanak ospatuko ditue; Arantzazun eta Diman, barriz, sanpedroak.

Sanjuanetan sua izango da protagonista nagusia herri eta auzuneetako jaietan. Bedian sei egunetako jai egitaraua prestatu dabe. Erromeriak, lehiaketa gastronomikoak... eta Agian eta Skakeitan taldeen kontzertuak egongo dira.

Ubiden, plazan altxautako arbolak adierazoko dau herria jaietan dagoa. Trikitilariak, txarangak, erromeriak, Djak eta kontzertuak ipiniko dabe musikea jaietako lau egunetan.

Sanpedroak ospatuteko hiru eguneko egitaraua prestatu dabe Arantzazun. Ze esatek! taldeak kontzertua emongo dau bagilaren 28ko gauean.

Diman be, bagilak 27 egunetik domekara arte, kontzertuak, erromeriak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta bertsolariak, jaigiroa ipiniko dabe herrian. Gurutze's manouches eta Arcada Social izango dira bertan. 5. eta 7. orrialdeak

ARRATIA

Udalak osotutako plenoak egin ziran bagilaren 15ean

Bagilaren 15ean Udalak osotu eta hurrengo lau urtetan alkate izango diranak hartu eben kargua. Herri gehienetan ez zan sorpresarik egon, baina Diman ez egoan ebatzita nor izango zan alkate. EAJ-PNV-ko Josu Gorospek hartu eban aginte makilea Dime Aukeratu plataformearen botoai esker. Ubiden, UHK-ko Iñaki Beobide da alkate barria. Igorren, EH Bilduko Illart Gumuziok bertso bategaz hartu eban kargua. 6. orrialdea



DIMA

Antidepressiboak eta eguzkitako kremen osagaiak arrainen gibeletan

Haizea Ziarrusta Intxaurtza Dimako Kimikan doktorearen doktoretza-tesia, ingurumenaren kutsadurearen gainekoa izan zan. Bertan, botika eta eguzki iragazki batzuek ura kutsatu, eta kutsatzaile horreek arrainetaraino heltzean dirala frogatu eban. Oin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, Osasun Publiko Teknikari moduan egiten dau behar. Alkarriketea eskaini deutso BEGITURI. 8. eta 9. orrialdeak

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, bagila osoa.
Tifn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2, liburutegia (Lemoa)

ARRATIA

Arratiako erreketatik zaborra jaso dabe Areatzan, Diman eta Zeanurín

Lemoan, errekea garbituteko hitzordua, bagilaren 22an da, 10:00etan, Gaztetxe azpian.

Dimak urteroko garbiketea egin eban maiatzaren 27an. Herrietik pasetan dan Indusi errekan, Arratia errekearen ibaiadarrean, plastikoak topau ebezan batez be. Adituen berbaldiak eta inguruaren kalidadearen neurketea be egin eben Diman.

Dimako eskoleak jasangarritasun ziurtagiria jaso eban bagilaren 4an. Mikrouhin-labea, pintura poteak, bidoi handi bat eta plastiko ugari jaso eben Areatzan.

Zeanurín Eguzkiola alkarteak erreka garbiketea egin eban hilaren 16an. 6. orrialdea

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gari / Garatxa



Azalean urteten dauan garaua, kasu gehienetan birus baten ondorioz sortuten danari, zera esaten jako: gari edo garatxa (garié eta garatxéa, ahoskatuta hurrenez hurren). Batuan, garatxo da. Gariak kentzeako modu eta bedar/landare desbardinak dagoz gure kultura tradizionalen. Arratiako adibide bat: "Bedian garatxak osatuteko gari-garauak erabilten zirean".

ERETXIA

Jagon beharreko altxorra

Seguru guztiok ikusi dogula oin dala gitxi argitaratu eta zeresan handia emon dauan Everesteko argazkia. Munduko puntu altuenetik 60 metro eskasetara ehunka persona edurrez betetako ertz baten alkarrerit lotuta gailurra zapaltzeko ilara egiten. Birgogoratu daigun argazkia eta buruan dogunean zintzotasunez erantzun: zertan gabiltz?

Planetako punturik altuenera heltzea ezinezkoa irudian arren, egunez egun argazki polit bat gura daben dirutsuentzat gero eta eskuragarriago dagoala emoten dau. Ha-ta guzti be, eztabaida hau ez da barria, Europara begiratu ezker Mont Blanc be hor daukagu. Alpeetako gailur edurtura igoteko neurriak hartzean hasi dira eta eztabaida bizia biztu da alpinisten artean. Eta zein da saltzean deuskuen urtenbidea? Mendira joatea erregulau beharra dago?

Batzuen esanetan Decathlonen moda dabil gizartean bueltaka, osasuntsuagoa danaren izenean aberasten dira batzuk. Aldizkari bat zabaltzeagaz nahikoa konturatze-ko: Photoshopez betetako paisaje eder bat! Ezezaguna? Seguruenik ez. Eta argazki honen ondoan izenburu polit bat eta bertara joateko konbitea, beinke. Ai, baita lau personaz osotutako familia eder eta zorionsu bat mendi garaiez inguratutako laku eder baten ha-maiketako jaten, bikote maitemindu bat baso magiko baten eskutik helduta paseo bat emoten... Aiba, azken hau Otzarretako basoa da, ezta?

Lasaitasun eta bakardadearen bila mendira jotzen dabenak zera dinoe: "Gero eta jente gehiago dago mendian". Nire zalantzak ditut horren inguruan. Mendiko txoko guztietan bardina gertatzen da edo guztiok goaz leku bardinetara? Zenbatetan ausartzen gara mendira joan eta leku ezezagunetara joaten? Zenbatetan hartu



GARAZI SANTOS
Ingurumen hezitzailea

dogu mapea eta bide barriren baten bila jarri? Orduan, mendia masifikauta dago edo a/b/c errazoiengaitik danok joaten gara leku bardinetara?

Gainbeheran doan mendizale-tasun eredu baten murgilduta gagoz. Astegoiena heldu eta mendi inguruetara jotzen dogu, nahiz eta gehienetan jente asko egongo dala jakin. Udako oporrak heldu, aterpe baten lekua hartzeako deitu eta beteta dagoala esaten deuskuenean harritu egiten gara, baina halanda be, motxilea pres-tatu eta harantza goaz planak aldatu barik. Everest, Mont Blanc, Aneto, Monte Perdido, Gorbeia... Zein izango da hurrengoa? Tontor ezezagunak ezetutea bultzatu beharko da beharbada, Areatzako alkarte biren artean egiten dabizen moduan; bigarren urtez buzoiak ipini ditue inguruko mendietan: Birgun eta Arranbaltzan. Egon zarie inoz?

Gai korapilatsua benetan. Ingurumen hezitzaile moduan apurka-apurka natureagazko galtzean gabiltzan konexino horren bila joaten animetan dot jentea. Argi daukat Amalurra babestu gura badogu, beharrezkoa dala gure zugatzak, mendiak, errekek, landareak... ezetutea, eta horretarako ezinbestekoa mendiko oinetakoak jantzi eta basoan murgiltzea. Baina, non dago muga?

Mendia gero eta eskuragarriago dago guztiontzako, baina beti gogoratuko dot lagun batek behin esandakoa: "Tontor gitxien zapalduko dituan mendizalea izango naz eta izenik bako mendiak konkistauko dituan". Hor ete dago erregulazioen erantzuna?

LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Populismoa?

Berben esangurea jendarteko hartu-emonetan sortutako adostasunaren emaitza ohi da. Gaur egun barriz, komunikazio bide eta sareen eraginez berben esangurea aldatu eta moldatzen da, eretxi publikoa sortu eta moldatzeko asmotan.

Holan, egon badago zentzu eta esangura desbardina daukien berbak. Hau da, adostu bako definizioa daukiezan berbak.

Euretako bat "populismoa" da. Zientzia sozialetan eta teoriaren artean horren esangurea zehazteko orduan desadostasuna nagusi da. Ha-ta guzti be, esangura zehatzik ez badauka be, berbeari zentzu ezkorra harapatzen deusagu danok, eta ezkortasun hori baliatuz komunikazio bide eta sare nagusietan "populismoa" ezinbesteko osagai bihurtu da bakotxaren diskurso politikoa sukaldatzeko; batez be, ondokoaren diskursoa kalifiketako orduan. Ezbaia po-

litikoan inok ez dau bere burua populizatzen jotzen, gainontzekoena barriz bai. Ildo bera erabilten dabe komunikazio eta politikako oligopolioak giza mobimentu edo herri mailatik sortu eta *status quo* kolokan ipinten daben alternatiba politikoa kritiketako. Latinoamerikako esperientziak begiratu baino ez doguz behar.

Ikuspegi kritiko batetik eta nire bizi esperientzian oinarrituta, populismoa ideologia baino, ideologia ezaren ondorioa da. Ez dauka norabide politikorik, ez dau ezelango konfrontaziorik gura, ezta ideena be, baretasun soziala bilatzen dau. Eretxi publikoan oinarritzen dan jarkerea da, komunikazio bide eta sare nagusiak ekoizten daben mezu eta eretxiaren menpeko jarkerea. Zentzu honetan, populismoa ideologia politikoa gaixotasuna da, alderdi, erakunde eta giza eragile guztietan agertzen dana, ez da populu edo herriaren eskubide nahiz interesak landu eta defendiduteko ildo ideologikoa, erispide eta lan ardatz bako jarkera eroso baino. Eretxi publikoagaz beti bat egin dauan jarkerea eta jarduteko erea.

Gure herrian, gure herrietan, oso hedatuta dagoan gaixo epidemia da, zoritxarrez, justizia, alkartasuna, askatasuna eta bardintasunerako erispide eta errazoietan oinarritutako edozein ebatzi hartu baino lehenago, hautetsontzietan izango dauan prezioa (galerak eta irabaziak) neurtzen dauana.

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Eta azukerea II

Oso gutxitan izan dabe alkarregaz gosalduteko aukerea azkenaldian. Urteak daroadiez (sei baino gehiago), batak goizez eta besteak arrastiz behar egiten, eta batari txanda aldatuten izan deusienean besteari be halan suertatuten izan jako.

Gaur ez, ordea. Karanbola miragarria izan da aste honetan kointzididu ahal izana eta, igual horregaitik, torpe dagoz: ez dakie zer esan alkarrerri goizeko honeetan orduetan. Kafea prestatu eta buzoia begituten joatea arrastiko txandan egon izan danaren ardura izan da orain artean. Gaur arte. Gaur be, bietako batek egin beharko dau, baina gaurkoa desbardina da: bina begi zelatari izango ditue.

Gizonak urratu dau isiltasuna begirada alkar truke

barik.

-Kafea nire kontu.

Jaka gainetik ipini eta atarira joan da emakumea. Propagandako bi gutun eta bankuko bat atera dituz postontzitik. Atzealdean, ostonduta, bildurra baleukie lez gutun zuri bi dagoz hartzailean izen-abizenak boligrafo urdinez idatzita: bata berarentzat da; bestea, gizonarentzat.

Gutunak eskuetan hartu dauzenean bildurra ez dala gutunana oharatu da eta nahikoa dala pentsatu dau. Eskua poltsikoan sartu eta han dago kanbioz jositako karteratxoa. Pauso makal baina seguruz emon ditu etxe azpiko dendarako hamar metroak.

Dendara bidean zakarrontzian lotu dira gutunak.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ez dakit zein izango dan Arratiako ratioa baina Bilbon, Asturiasen, Madrilan... leku gehienetan, ume baino txakur gehiago dagozala irakurri dogu prensan egunotan. Arratia moduko landa guneeetan be, txakur populazioak gorako joerea daukalakoan nago. Alde batetik, bildur kanpainak zabaltzen dira lantzean behin, eta ondorioz, balizko lapurretatik etxea defendiduteko txakur kuadrillea beharrezkoa dala uste dabe askok. Eta bestetik, uriak erdigunean ipinten dauzan mundu globalizau honetako maskota kontzeptua zabaldu egin dalako. Baita, txakurrak funtzino bat eukien nekazal guneeetan be. Horren arabera, txakurrak seme-alaben parekoak dira, umeak langoak.

Gizarte laiko honetan, diru asko mobiduten diran industriak izateaz gainera, erlijioaren parekoak ei dira biajeak eta kirola: ontasunaren ikur, iturri eta dogma. Eta maskotak be bide horretatik doaz. Defendiduten daben txakur izateko estereotipoa txakur-maskota aberaskumea da. Ni neu, txakurren arteko klase gatazkarik balego, txakur langileen alde beti.

Bagilaren 15ean eta 16an, 08:00retan, Artzai Txakur Lehiaketea Zarauzko Gran Camping-aren gaineko aldean egon zan.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexkolda, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 505 554 012

1000
gaurik
osatu!
Troka
Lanabizari Agure II

UBIDE

Sua eta arbolea Ubideko jaietako protagonistak

Erredakzioa

Tradizioari eutsiz, aurten be arbolearen bila joango dira basora Ubideko herritarrek, gero arbolea plazan altxau eta bertan egongo da jaietan. Sua be biztuko dabe San Juan bezperan ilundu bezain laster, 22:00etan. Trikitilariak, erromeriak, elektrotarangak, DJak eta kontzertuak ipiniko dabe musikea. Eszenalekua hilaren 15ean ipini eben eta kendu be herritarren artean egingo dabe, jaigiroan, jaiak hasikerea eta amaiera emoteko.

Bagilak 21, barikua

17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbolea altxau plazan. Ondoren trikitilariak.
23:00etan, Tokan 2 La Polla taldearen kontzertua.
01:00etan, DJ Tarantistak Martxan.

Bagilak 22, zapatua

12:00etan, herri kirol erakustaldia.
18:00etan, Orkestra Elektrotuna.
21:00etan, Play-back Lehiaketeta.
21:30ean, herri afaria.
23:00etan, Puro Badajo y la Chirila Colorada taldearen kontzertua.

24:00etan, erromeria EinGO taldeagaz.

Bagilak 23, domekea

11:00etan, puzgarriak.
17:30ean, pala eta eskupelota partiduak.
Pala: Maialen Landajo (Zeanuri)-Maialen Bengoetxea (Zeanuri) vs Araitx Zapiko (Dima)-Itsaso Larrinaga (Zeanuri).
Eskupelota: Patri Espinar (Usansolo)-Maddi Mendizabal (Zaldibia) vs Ainhoa Urien (Abadiño)-Miriam Arrillaga (Aginaga).
20:30ean, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak.
21:00etan, herri parrilladea.
22:00etan, sua.
23:00etan, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak.

Bagilak 24, astelehena

13:00etan, herri kopaua.
13:30ean, antzara erakustaldia.
17:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.
20:00etan, atzen traka.

Bagilak 29, zapatua

10:00etan, eszenalekua kendu.

BEDIA

Sua eta erromeriak Bediako sanjuanetan

Erredakzioa

Hilaren 20an, eguenean, botako dabe txupina Bedian herriko jaiak hasikerea emoteko, aurreko domekea be jaigiroan pasau arren, azoka eta umeentzako tailerrakaz. Baina askorentzat, momenturik bereziena, San Juan egunaren bezperan, gauerdian, izango da suak biztuterakoan.

Erromeriak, lehiaketa gastronomikoak, karta joko lehiaketak, antxinako autoen erakusketeak, slalomak, herri kirolak, umeentzako puzgarriak eta Agian eta Skakeitan taldeen kontzertuak, besteak beste, osotuten dabe jaietako egitaraua.

Bagilak 20, eguena

20:00etan, jaien hasikerako pregoia eta txupinazoa trikitixegaz alaituta. Sardina jana.
21:00etan, Play-backa.
21:00etan, erromeria Gauargi taldeagaz.

Bagilak 21, barikua

18:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen emotea.
20:00etan, tortillak aurkeztu.
21:00etan, herri afaria.
22:00etan, Jauziri Bediako jantza taldea.
23:00etan, erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Bagilak 22, zapatua

12:00etan, XII. Paella Lehiaketarako izen emotea.
14:00etan, paellak aurkeztu.

17:00etan, Mus Txapelketeta Bartzokiak antolatuta; bazkalosteko "Bingo kantuz kantu" eta umeentzako tailerrak.

18:00etan, Bitxo do Samba batukadea.

20:00etan, X. Igel Txapelketeta Laguntasuna tabernak antolatuta.

23:00etan, Agian eta Skakeitan taldeen kontzertuak eta DJ Markelin. 02:30ean eta 05:00etan, Arratiara, Galdakaora eta Zornotzara autobusa.

Bagilak 23, domekea

11:00etan, meza nagusia.
12:00etan, eskupelota eta pala partiduak; pintxo eta pote txonetan eta V. Antxinako Auto eta Motorren Erakusketea.
15:00etan, Club Automovilístico Bizkaia antolatuta, III. Bediako Slalom-a San Lorenzo poligonoan.
18:30ean, Herri sport, parte hartzeako herri kirolak.
20:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz.
24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, astelehena San Juan Eguna

11:00etan, meza nagusia.
12:00etatik 13:30era arte, puzgarriak eta jokoak.
17:00etatik 19:30era, puzgarriak, jokoak eta bitsa.
17:00etan, XXXIII. Briska Txapelketeta. Bikotekide bat behintzat Bediako. Izen emotea 6 euro bikoteko.
20:00etan, txokolatea jaiak amaiera emoteko.

ZEBERIO

Asiako liztor erreginak harrapatzeko kanpaina egin dabe Zeberion

Erredakzioa

Martiaren 12tik maiatzaren amaiera arte, Zeberio Udalak kanpaina bat bideratu dau herrian, liztor honen gorakadea eteteko. 60 tranpa banandu dabez herrian eta 1.500 liztor harrapatu eta hil dira bertan. Oin udan, jarraipena egingo dabe ikusteko zenbat kabi agertzen diran eta ea egindako lanak frutua emon dauan.

Zezeila eta marti hasikeran, negua lo emon ostean, Asiako liztor erreginak urtetan dira janaren bila. Biodibersidadeari eta batez be erleai egiten deus kanpaina kalteagaz kezkatuta eta 2012tik Bizkaian agertu zanetik egin dauan gorakadea eteteko asmoz, Zeberio Udalak liztor erreginak harrapatuteko kanpainak ipini ditu martxan. Aurten 60 tranpa ipini ditue auzuneetan. Tranpak, garagardao baltza, ardao zuria eta akabi zukua nahastuta sortu ditue. "Sasoi honetan, tranpak edozein lekutan ipini ahal dira, fruta-arboletan, zugatzetan... ez dira derrigor ipini behar erlategietan. Eta hamabostean behin, edari nahastea aldatu egin behar da eta zenbat liztor harrapatu diran zenbatu" azaldu deuto BEGITURI Unai Larrabide zinegotziak.

Aurtengo kanpaina amaitutzat emon dabe, baina baten batek jarraipena emoten badeutso balioduntzat jotzen dabe Udaletik. Oingo sasoiak, liztor beharginak eta ez erreginak harrapatuko dabez.

Balorazino positiboa

Kanpaina oso positibotzat jotzen dabe, jentearen partaidetzeari eta lortutako emaitzai jagokienean. Izan be, guztira 25 herritarrek hartu dabe parte eta 1.500 liztor harrapatu. Liztor erregina bakoetak, liztor ugariko kabiak egiten ditu eta emaitzak ikusita pentsau leiteke, kanpaina arrakastatsua izan dala. "Garrantzitsua izango leiteke hurrengo urteetan be jarraipena emotea holango kanpainai eta apurka-apurka jenteari konzientzia hartutea liztor honek dakarzan kalteen gainean".



UBIDE



Jai batzordeak eta Ubideko Udalak

Gora San Juanak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

BEDIA



Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ARRATIA

Plastiko eta zabor ugari jaso dabe erreketan**Erredakzioa**

Arratiak ez dauka itsasorik, baina bai izena eta izana emoten deusan errekea eta beste erreka batzuk. Honeetan be plastikoak eta mota guztietako zaborrak pilatzen dira. Errekea eta naturaren alde, Diman, Areatzan eta Zeanurin euren herrietatik pasetan dan erreka zatia garbitu dabe. Gauza bera egiteko, Lemoakoak bagilaren 22an daukie hitzordua, 10:00etan, Gaztetxe azpian.

Dimako eskoleak maiatzaren 27an garbitu eban Indusi errekea. Urtero garbituten dabe eta aurtent kultur astearren barruan sartu dabe ekintza hori. Gaiaren inguruko aditu batzuen berbaldiak be entzun ebezan eta galdetegi bateri be erantzun eutsien. Errekearen hiru gunetan egin eben garbiketean eta batez be plastikoak jaso ebezan. Baita etxeko zaborra be, kortina batzuk tartean.

Dimako eskoleak, eskola jasagarriaren ziurtagiria jaso eban hilaren 4an, Iñigo Urkullu Lehendakariaren eskutik. Ziurtagiriak lau urterako baliogarrtasuna dauka. Beste 21 ikastetxek, Bizkaiko beste 13k be jaso eben jasagarritasun ziurtagiria.

Areatzan mikrouhin labea eta pintura poteak

Areatzan, eskoleak deituta, bagilaren 11n, ikasle, irakasle eta he-

rritar batzuk osotutako 30 lagun inguruko talde batek ekin eutsan lanari. "Uste baino zabor gehiago ateratu genduan. Udaletxeko atoa goraino bete zan" azaldu deutso BEGITURI Jon Zamalloa eskolako irakaslea eta garbiketako ardura-dunak.

Garbiketa lanak hiru gunetan egin ebezan. Lehenengo gunea, pasealekua hasten dan lekutik Zubizarrairainokoa izan zan. Han batez be, litxarrerria paketeak eta tanpoiak topatu ebezan. Bigarren gunea, Zubizaratik Arratia ibaiak eta Iturrimorrotik datorren errekeak bat egiten daben lekurainokoa izan zan. Han, topau eben zabor gehien; besteak beste, mikrouhin-labe bat, bidoi bat, hainbat pintura pote beteta, autoetako alfonbrak eta aterki zaharrak. Hirugarren gunean, Arragoeta eta Gaztetxe ingurukoan, batez be zigarro muzkinak, plastikoak eta garagardao eta freskagarri latak topau ebezan.

Zeanuri eta Lemoa

Eguzkiola Kultura Elkarteak hilaren 16an erreka garbituten deitu ebazan zeanurizarrak. Plastiko eta burdinazko gauzak topau ebezan eta puntu baltz bi identifikau.

Lemoako herritarrek hilaren 22an, 10:00etan, Gaztetxe azpian daukie hitzordua erreka garbituteko.



ARRATIA

800 megahertzioko bandan 4G sarea zabalduten hasi dira**Erredakzioa**

Telefonia mobikorraren konpainiak, Telefonica, Vodafone eta Orange, beste batzuen artean, hasi dira 4G sarean zerbitzuak eskaintzen, 800 megahertzioko bandan. Oin arte banda honetan TDT (Televisión Digital Terrestre) zerbitzuak egozan eta hemendik aurrera zerbitzu biak banda ho-

rretan egoteak telebistako seinalean eragina izan leike.

Horregaitik, TDTn aldaketarik sumatu ezker, antenan filtro bat ipintea eskatu daiteke 900 833 999 telefonoan edo www.llega800.es webgunean.

Esku hartze tekniko honek, telefonia konpainien betebeharrak dira eta ez daukie kosturik herriarrentzat.

ARRATIA

Eukiontzi marroia zabalduteko txartelak Arratia osoan bananduko dira**Erredakzioa**

Arantzazun eta Ubiden egin zan moduan, bagila amaitu orduko, Mankomunidadeak, Arratia osoan eukiontzi marroira apuntatu dagozan guztiai txartel elektronikoa personalizaua bananduko deutse eta eskutitz baten bidez, txartela zelan erabili eta boltsa konpostagarriak doban jasoteko modu barria azalduko dau.

Txartelak, eukiontziak zabalduteko eta boltsa konpostagarriak lortzeako balio dau. Barritasun moduan, leku gehiagotan jasoteko aukerea izango dabe erabiltzaileak: udaletxe eta Mankomunidadeaz

gainera, arrasti eta astegoienetan zabalik dagozan zenbait eraikin publikotan eta dendatan be jaso ahal izango dira boltsa konpostagarriak: Areatzan, Dendabarrin; Artean, Urki Mendin; Bedian, Liburutegian; Diman, Aliproxen; Igorren, Kultur Etxean; Lemoan, Kiroldegian, Liburutegian eta Matsos



Frutategian, eta Zeanurin, Txoko Sagarnan, hain zuzen be.

Txartela etxera bialduko da

Eukiontzi marroira apuntatu gura izan ezker, udaletxean edo Mankomunidadean izena emon eta materialeak jaso eta gero (ku-boa, boltsak eta informazioa), txartel personalizaua etxera bialduko da. "Momentuz, eukiontzi marroian, hondakin begetalak bakarrik bota daitezke, sukaldatu bakoak eta sukaldatutakoak, baina espero dogu laster hondakin organiko guztiak bota ahal izatea" dinoe Mankomunidadeetik.

ARRATIA

Dime Aukeratu plataformeari esker, EAJ-PNVk eskuratu dau Dimako alkatetzea**Erredakzioa**

Dime Aukeratu plataformek EAJ-PNVri emon eutsazan botoak eta Josu Gorospe Lapatza jeltzalea da Dimako alkatea. Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan, Diman EH Bilduk lau zinegotzi lortu ebazan, EAJ-PNVk hiru eta Dime Aukeratu plataformek bi eta plataforma honetako botoak erabakiorrak izan dira alkatea izentatzeko.

Tensinoa egon zan bagilaren 15eko Udal osaketarako plenoan. BEGITUREN iturrien arabera, plataformako botoa emon eutsenean EAJ-PNVri protestak egon ziran publikoaren artean. Ordura arte alkate izandako Nekane Intxaurtzak emon eutsan makilea Josu Gorospe alkate barriari eta lehenengotik Intxaurtzak eta gero Gorospek berbea hartu eben. Jeltzaleak momentu baten gaztelaniaz egin eban berba eta barriro be, publikoko batzuen protestak entzun ziran. Plenoaren helburua beteta egoanez amaitutzat jo zan. Klean, sinatu bako esku-orri batzuk egon ziran, plataformearen jarkerea kritikauz.

Ubiden Iñaki Beobide alkate

Ubiden, Iñaki Beobide Ruiz de Escudero hartu eban alkate kargua bagilaren 15ean. Herri txikietan ez da zerrendabururik egoten. Hauteskundeetan, herritarrek boto nominalak emoten dabez eta UHK-n Beobide eta Ernesto Villatek lortu ebezan boto gehien. UHK-k ebatzi eban bere hautagaia Beobide izango zala.

Ubideko udal gobernua UHK-ko

lau zinegotzik eta EAJ-PNVko batek osotuten dabe. Danak gizezkoak.

Beste herriak

Beste herrietan gehiengo osoa eukan alderdiren batek. Alderdi horreetako zerrendaburuak izentau ebezan alkate.



Dimako plenoa. Argazkia: Facebook, Dimako Herria.

EKAINETIK AURRERA EDUKIONTZI MARROIA TXARTELAGAZ ZABALDUKO DA

Orain, leku gehiagotan poltsa konpostagarriak debalde

INGURUMENAREN ALDE JOKATU ETA APUNTA ZAITEZ!!!!

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA: 946 311 717

arratia21.ariatia@bizkaia.org



DIMA

Gaztebarri taldekoak botako dabe jaiai hasikerea emoteko txupina

Bagilaren 27an, eguena, 19:00etan, botako dabe txupina jantza taldekoak, baina aurretik be badagoz jarduerak jai egitarauan; eskalada tailerra, besteak beste.

Eguenetik domekara arte, kontzertuak, erromeriak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta bertsolariak, umorea eta jaigiroa ipiniko dabe herrian. Kontzertuak jagokienean, Gurutze's manouches eta Arcada Social izango dira Diman zapatuan, hilak 29.

Erredakzinoa

Egitaraua

Bagilak 23, domekea

16:00etan, Txumuluxueta Pelota Eskolako Txapelketea.
20:30ean, San Juan sua Arratiako albokarien musikeak lagunduta.

Bagilak 27, eguena

11:30ean, herria apainduteko tailerra guraso alkardeagaz.
18:00etan, eskaladea danontzat Ilunbe taldeagaz.
19:00etan, txupina Gaztebarri taldeko jantzariak eta jolasak danontzat.
20:00etan, Tortilla eta Tostada Lehiaketea.
23:00etan, erromeria Elizagoien ahizpak taldeagaz.

Bagilak 28, barikua

17:30ean, Dimako sanferminak zezen puzgarriakaz.
18:30ean, Herriko Esku Pelota Txapelketako finalak.
20:00etan, kale animazioa.
21:30ean, herri afaria. Bitartean jaietako argazkien proiektzioa.
23:00etan, *Bocabeats* umorezko ikuskizuna eta DJ Isma.

Bagilak 29, zapatua

13:00etan, 85 urtekoai omenaldia. Ondoren jubiladuentzako bazkaria.
17:00etan, buruhandiak Haur Hezkuntzakoentzat.



17:30ean, herri kirolak danontzat.

19:00etan, Sakatu elektrotxaranga eta jolasak danontzat.

19:30ean, taloak Andraizearen eskutik.

22:00etan, Gurutze's manouches-en kontzertua.

24:00etan, euskal errepresaliaduen giza eskubideen aldeko ekitaldia. Ondoren Arkada Social taldearen kontzertua eta erromeria Ilargi beltza taldearen eskutik.

Bagilak 30, domekea

11:30ean, puzgarriak.

12:00etan, goitibehera jeitsiera herrikoia.

13:30ean, Otxote Muñatones Abesbatzaren kontzertua.

14:30ean, Paella Lehiaketea. Ondoren, errefujiaduen aldeko bingo musikatua.

18:30ean, bertsolariak: Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Xabat Galletbeitia eta Nerea Ibarzabal. Ondoren, Balkoien Lehiaketearen sari banaketea.

20:00etan, Cía. Barsanti taldearen *Kale gorrian* antzerkia.

21:00etan, txokolatea Zamakola alkardearen eskutik eta agurra.

ARANTZAZU

Ze esatek! taldearen kontzertua San Pedro egunaren bezperan

Erredakzinoa

Arantzazuko jaietako txupina bagilaren 28an, barikuan, botako dabe arrastiko 19:00etan. Gaua, Ze esatek! rock, reggae eta ska taldeak eta Ingo al deu erromeria taldeak animauko dabe. Zapatu gauean be erromeria egongo da Bidean taldeagaz.

Hiru egunetako jai egitaraua prestatu dabe Arantzazun. Bertan, musikeak, mota guztietako lehiaketak, umeentzako jolasak eta antzerkiak ondo pasetako aukerea emongo deutsee bertokoai eta hurreraten diranai.

Barikuan, bagilak 28, Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da goizaldeko 03:30ean.

Aurreko domekan San Juan jaiak be ospatuko dabez.

Bagilak 23, domekea

20:30ean, sardina jana plazan.

22:30ean, sua.

Bagilak 28, barikua

14:00etan, jubiladuentzako kopaua plazan. Eguraldi txarra egin ezker, frontoian.

18:00etan, "Mairuek" Gaztediko erraldoiak eta musikariak.

19:00etan, txupinazoa eta pregoia.

19:30ean, euskal jantzak musikariakaz.

20:30ean, Futbolin Txapelketea Herriko Tabernan.

22:30ean, Arantzazuko Neskazu taldearen kontzertua.

23:30ean, Ze esatek! taldearen kontzertua.

01:30ean, erromeria Ingo al deu taldeagaz.

Bagilak 29, zapatua

12:00etan, Umeen Txinga Txapelketea eta Igel Txapelketea.

13:00etan, mezea.

14:30ean, Paella eta Tortilla Txapelketak plazan.

17:00etan, Mus Txapelketea Herriko Tabernan.

18:00etan, Play-backa plazan.

19:00etan, Nagusien Txinga Txapelketea

21:00etan, erromeria Bidean taldeagaz eta pijama jaiak.

Bagilak 30, domekea

10:00etatik 13:00etara, puzgarriak frontoian.

13:00etan, bits jaiak frontoiko parkinean.

17:30ean, ginkaneak herritik zehar.

18:30ean, antzerkia plazan.

19:30ean, bingoa eta txokolatea plazan.



HAIZEA ZIARRUSTA INTXAURTZA

"Tesia hasi nebanean baino galdera gehiago daukadaz oin buruan"

Dimako Haizea Ziarrusta Intxaurtza Kimikan doktoarearen doktoretza-tesia, ingurumenaren kutsadurearen gainekoa izan zan. Bertan, botika eta eguzki iragazki batzuek ura kutsatu, eta kutsatzaile horreek arrainetaraino heltzean dirala frogatu eban.

Oin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, Osasun Publiko Teknikaria da.

Erredakzinoa

Zerk bultzatu zinduan ingurumeneko kutsadura ikertzeraz?

Kimika lizentziatura egin neban, eta horren ostean, ingurumenaren kutsadura eta toxikologiaren inguruko masterra. Eta horregaz lotuta, segiduan hasi neban doktoretza EHUan bertan, Kimika Analitiko Sailean. Gero, egonaldi bi egin nebazan kanpoan. Bata Estokolmoko Unibersidadean eta bestea Bartzelonako Unibersidade Politeknikoan. Eta lau urteren ostean...

Unibersidade horretan, beharrezan egon zinan?

Bai. Doktoretzan, beste ikerketa talde batzuk alkarlana egiten dogu. Gai batzuetan gu ez gara adituak eta gai horretan esperientzia gehiago daukienakana josten dogu. Han ikasi eta hona ekarri, hemengoai kontau eta geu be aberastuteko.

Doktoretza igazko urri bigarrenean defendidu neban. Defendidu nebanean lanean nengoan Osasun Publikoan. Ikuskaria naz. Goi Mailako Teknikaria.

Momentu honetan, ikertuten jarraituten dozu?

Momentu honetan ez nago ikerke-

tan, baina ikerketako taldeagaz ez dot hartu-emonu galdu. Oindino artikulu batzuk publikatu barik dagoz eta segiduten dogu alkarregaz lanean. IBeA taldea da, Ikerkuntza eta Barrikuntza Analitiko, EHUko Kimika Analitiko Sailekoa.

Zertan datza zure oingo lana?

Lanaren helburua osasun publiko egoki bat bermatutea da. Taberne-

tan, janariaren baldintza higieniko-sanitarioak bermatutea; osasuna hobetuteko kirola sustatu: ibilbide osasungarriak edo elikadura osasungarria ikastetxeetan, berbarako. Uren kalidatea be begiratu, eta *Legionella* arriskua gertatu ahal dan lekuetan ikusi ea kontrolik dagoan... Arlo diferenteetan egiten dogu lan, osasun publikoari lotuta.

Interesgarria da, baina administrazioan protokoloak segidu behar dira. Ikerketeak gehiago ateraten dau zugandik.

Zergaitik ikasi zinduan Kimika?

Beti gurago izan dot zientzietako adarra; Matematika, Fisika, Kimika... horreek gustetan jataz gehien. Matematika gustetan jatan baina kimikari ikusten neutsan



Haizea Ziarrusta.

aplikazio zuzena. Gero karrerari lau adar dagoz: Kimika Analitiko, Fisikoa, Organikoa eta Inorganikoa. Eta karrerari aurrera egin ahala, nahiko argi euki neban Kimika Analitiko egingo nebala.

Azaldu doktoretza tesirako egin zinduan ikerketea.

Ni karrerari nengoala egon nintzan kolaborazio beka batez, Kimika Analitiko laborategian. Eta Kimikako laborategi horretan ingurumeneko laginak, ingurumeneko kutsadura eta kutsatzaile desbardinak aztertzen ziran.

Doktoretza egitean, zeure proiektua izan arren, ikerketea talde batez egiten dozu. Taldea sortuta eta bideratuta dago. Ikerketa babestuteko diru piloa behar izaten da. Diru bat lortu zan ekosistemari osasuna eta horrek ze eragin euki ahal dauan aztertuteko. Proiektu horretan lan diferenteak egin behar ziran eta doktoretza egiteko asmoak egon ginan artean banandu ziran lanok. Beti behar izaten da besteren lana. Nire tesia narratiba oso bat da, baina besteak batera osotuz geratzen da. Tesi batez bakarrik ez dira beteten proiektuko helburu guztiak.

Nor izan zan zure tesi zuzendaria?

Zuzendari bi euki dodaz Maitane Olibares Zabalandikoetxea eta Olatz Zuluaga Zubieta. Biak dagoz EHUan irakasle eta talde haretan segiduten dabe.

Ikerketa taldean ikusi genduan urak kutsatuta dagozala, baina askotan kutsatzaile bardinak begiratuten doguz uretan. Eta badagoz batzuk, begiratzen ez doguzalako ez doguzanak ikusten. Hori da botiken kasua. Asko ez dagozanez legislatura, ez dira begiratuten eta ez da kontrolik egiten.

Arratia
ubide eta zeberio
euskera
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkartea
Berrito Plaza 21, 20112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu



Plentziako Itsas Estazinoa.

Beste akats bat nahikotxo egiten dana da ura bakarrik aztertutea. Eta gu konturatu ginan, ba kutsatzaileak uretan badagoz, zergaitik ez dira egongo bertan bizi diran arrainetan? Baina ez da bardin, ura aztertutea edo arrain bat aztertutea. Eta ez da bardina arrainaren odola, giharra edo gibela aztertutea. Orduan metodo espezifikoak garatu behar izan genduzan kutsatzaile konkretu batzuk aztertuteko.

Nongo urak eta arrainak ziran?

Urdaibaikoak. Metodoa garatuteko aukera bi dagoz: aztertutea ahalik eta gehien, edo aukeratutea kutsatzaile batzuk eta horreek ikusteko metodo sentikorragoa garatutea. Eta gure apustua bigarren hori izan zan. Antidepressibo batzuk, antibiotiko batzuk eta eguzkitako kremetan dagozan konposatu batzuk aztertu genduzan. Eta ikusi genduzan baietz, badagozala bai uretan, baita arrainen gibeletan be.

Ikerketearen helburua uretan dagoan kutsatzaile bat ea arrainera heldu daiteken jakitea zan. Aurreikerketearen ondorioa izan zan, argi dagoala arrainak akumu-

letako arriskua daukiela. Gero, gura izan genduzan ondo-ondo jakin, kutsatzaile hori zelan sartuten dan arrainean eta zelan bananduten dan arrainaren barruan. Hori ezin da egin errekan bertan, ze errekan aldagai piloa dago eta ezin dira kontrolau. Orduan esperimientua diseinatu genduzan laborategian kontrolauta dagozan baldintzetan egiteko. Suerteau daukagu Plentziako Itsas Estazinoa daukagulako, ze holango ikerketa bat egiteko pilo bat arrain behar da. Orduan hartu genduzan haztegiko arrainak, doradak, eta han genduzan arrain gazteak egin genduzan esperimientua.

Tanga bitan ipini genduzan arrainak, eta bat kutsatu genduzan guk guratoko konposatuakaz. Honeek izan ziran: amitriptilina antidepressiboa, ziproflaxin antibiotikoa eta oxibentzona ultramore-iragazkia. Eta ikusi genduzan arrainen gorputzera hirurak sartzean dirala modu diferentean. Antidepressiboa arin pasetan da garunera. Logikea dauka, ze organo horretan eragiteko diseinatu dago. Oxibentzona be asko akumuletan da arrainean,

polaridade baxua daukalako, eta antibiotikoak, kontrara, polaridade altua daukanez, gorputzean sartu baina segiduan kanporatuten da. Horrek ez dau esan gura arrainean eraginik ez daukanik.

Antidepressiboak arrainen jokaerea diferentea zan?

Bai. Hori zan gure bigarren helburua, ikustea ea ze eragin daukien kutsatzaile horreek arrainetan. Ikusi genduzan akumuletan dirala eta botika hori guri eragin bat egiteko dago sortuta, zergaitik ez deutso ba eraginik egingo arrainari? Eta ikusi genduzan esperimientu baten, dosi altuan antidepressiboa hartutako arrainak zurbildu egin zirala, zurutu, eta apetitoa bajatu egin jakien. Gelditu ziran erdi grogi moduan, ibiltzen ziran astiroago...

Baina, aldaketa bat ikusteko organismo mailan, hau da, zuk begiakaz ikusi ahal izateko, bere gorputzeko metabolitoetan emon diran aldaketak handiak dira. Orduan arrainen metabolismoa aztertu genduzan. Eta oxibentzonagaz, eguzkitako kremeagaz, begibistan ez zala ezer aldatuten emoten eban arren, ikusi genduzan aldaketak metabolitoetan.

Ikusten da arrain kutsatuetan badagozala aldaketak.

Orduan oin zer egin behar da?

Guk egin dogun ikerketea beste ikerketa genomiko batzukaz edo konparau beharko litzateke, benetan esateko aldaketak egon dirala eta zein mailatarainokoak izan daitezkezan. Ze, arrainari metabolitoa aldatu arren, akaso ez deutso askorik eragingo. Baina ez badau jaten eragina euki ahal dau arrainaren superbibentzian eta arrain asko hiltzen badira, horrek populazioari eragin ahal deutso.

Guk egin genduzan esperimientuak aste biko esperimientuak ziran baina arrainak bizitza osoan dagoz

uretan, eta ez dira bizi antidepressibo edo antibiotiko bakar bateri esponduta, kutsatzaile koktel baten bizi dira.

Gure ikerketea atariko ikerketea dala esango neuke. Oin ikusi beharko da ea espezie diferenteetan eragina bardina dan ala ez. Ea eragina bardina dan arrain gazte, arrain handi edo-eta arrautzetan, berbarako. Nik pentsetan dot tesia hasi nebanean baino galdera gehiago daukadazala oin buruan.

Kutsatzaile koktel bat da itsasoa orduan. Egin beharko litzateken lehenengo gauzea da itsasoa ez kutsatu, ezta?

Hori da. Kontua da gure aktibidadeagatik gizakiok urak kutsatuten badoguz, arrainak arriskuan ipintzen gabizala. Eta beste kontu bat da zer egin ahal dogun kutsadura hori ekiditeko. Hori ez da izan ikerketa honen helburua baina buruan eukiteko gauza bat bada. Eta botiken aldetik, neurri bi dagoz: bata da konsumoa bajatutea, ze botika batzuen kasuan, nire ustez, konsumoa ez da egokia... Eta bestea da kutsatzaile hori garbitu ahal daben araztegiak egitea. Ze kutsatzaile barriak sortzean badoguz, arazte-

giak egokitu beharko dira kutsatzaile horreek garbituteko.

Antidepressibo lar hartzean badira gizarte baten, igoal diseinatu beharko litzatekena da gizarte zoriontsuago bat.

Bai. Halan da. Eta albo efektu gitxien daukien antidepressiboak diseinatu beharko dira. Eguzkitako kremetan kasuan, ez dira araztegiatik pasetan, ze nik hondartzan krema emon eta uretara noa segiduan. Botiken kasuan kutsatzaile ez-zuzena dala esaten da, bide bat egin behar daualako, kremetan kasuan barriz, zuzena.

Baina badagoz alternatibak. Badagoz ingurumenerako hain kaltegarriak ez diran osagarriak daukiezan kremak. Nik aztertu dodan kutsatzailea, oxibentzona, hemen ez dago legislauta, baina Hawain debekatuta dago koralarri kalte egiten deusalako.

Hasi beharko gara farmazietan eta "itsasoaren laguna" edo antzeko pegatinadun produktuak eskatzen. Nik pentsetan dot badagozala norbanakook egin ahal doguzan gauzak, hartu ahal doguzala neurri batzuk. Eta beste asko ebatzi politikoak dira.



ZURE ZERBITZURA
Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua

AVIA

GURE BIHOTZA
Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

FUTBOLA**Arratia Bigarren Mailara igon da, klubaren historian bigarrenenez****Erredakzioa**

Arratia Futbol Taldeak gora igon dau eta estaduko Bigarren Mailan jokatuko dau datorren denporaldian. Ez da lehenengo aldia kluba maila horretara heldu dana. 2016an be igon zan andrazkoen taldea maila honetara eta 2016-2017 denporaldia maila horretan egin eban.

Gizonen taldea barriz, mailaz

bajatu da. Lurraldeko ligan, Ohorezko Mailatik, Lehenatasunezko Mailara jeitsi da.

Arratia B eta LemoaHarrobi

Arratia Bk, Emakumezkoen Lurraldekoan, Lurralde Mailan, jokatuten jarraituko dau datorren denporaldian be; ligea bosgarren eginda amaitu dau. Postu berean amaitu dabe Arratia Bko gizonak.

**Arratia Futbol Taldea.**

Honeek, Lurraldekoan Bigarren Mailan dagoz.

LemoaHarrobik 10. egin dau Lurraldekoa Lehenengo Mailan.

Gaztetxoak

Gazteak Mailako Arratia taldeak

gora igon dau eta Lehenatasunezko Mailan jokatuko dau 2019-2020 denporaldia.

Arratiak gainera talde barria aterako dau datorren denporaldian: nesken benjaminen taldea, hain zuzen be.

TXIRRINDULARITZEA**Kadete lasterketea Zeberion****Erredakzioa**

Zeberio Udalak Ugaoko Txirrindularitza Elkartearen laguntzeaz XXX. Kadete Txirrindularitza Lasterketea, XXV. Asel Ozerinjauri memoriala antolatu dau bagilaren 23rako.

Kadete mailako txirrindulariak 16:30ean urtengo dira 50 kilometroko ibilbidea egiteko. Ibilbidea, Zeberio, Ugao, Zeberio, Artea, Areatza, Artea, Zeberio eta Ugaotik pasauko da Zeberion amaituteko. Artean, Haur mailako txirrindulariak batuko dira lasterketara.

PALEA**Lur Olabari eta Maialen Bengoetxea Joko Alaikoak Bizkaiko txapeldun Haur mailan****Erredakzioa**

Lur Olabari eta Maialen Bengoetxea Joko Alaiko Haur mailako palariak Bizkaiko Eskolarteko txapela irabazi eben maiatzean Orozkoko Olgetan klubaren kontra 2-1 finala irabazi osten. Finala Sopelan jokatu zan.

Bagilaren 2an, Zeanuriko pala-

riak, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan Araba eta Gipuzkoako txapeldunakaz neurtu ziran. Partiduak nahiko bardinduta egon arren, nagusitu egin jakiezan arabarrak eta gipuzkoarrak, eta Bizkaiko txapeldunak, ezin izan eben Euskadiko txapela lortu.

**MENDIA****Areatzako Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak eta Lamino Kirol Klubak buzoia ipini dabe Arranbaltza mendian****Erredakzioa**

Bagilaren 15ean, Areatzako Laminok eta Gorbeako Gurutzea Peñak buzoia ipini eben Arranbaltza mendian. Igaz talde bi honeek Birgun mendian ipini eben alkarlanean lehenengo buzoia. Helburua hain ezagunak ez diran tontorrek ezetuten emotea da. 20 lagun batu ziran eta buzoia ipini ostean mokadutxoia euki eben Arrabako errefugioan.





DISCIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net




www.alkizabal.net











ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro: "Modu profesionalean egiten dogu kirola eta laguntzak eta sariak bardindu behar dira"

Oskar Garro 43 urteko txirrindulariak bota eban txupina Igorreko jaietan. Igorrekoak Euskal Herriko txapel bi ditu eta Espainiako txapelketako MC2ko txirrindularitza egokitutako podiumeko kajo gorenera igon da hirutan, pistan hiruko taldean irabazita. Denporaldi honetan barriz, ez da bizikletara igon, hanka bietan ebakuntza egin eutselako zemendian. Osatuteko beste urtebete beharko daukela dino, baina ostean bizikletea barriro hartu eta Munduko Kopan parte hartu gura dau; gorputzak kontrakoa esan arte, kirol profesionalean jardun.

Erredakzioa

Igorreko jaietan txupina botateak, egin dozun ibilbideari onarpena emotea da, ezta?

Bai. Aurten Igorreko Jai Batzordeak txupina botateko aukeratu nau eta ohore bat izan da niretzat. Herri guztiaren aurrean, sano pozgarria izan da. Kirol inklusibo eta egokitan ibiltzen garanon ordezkari izan gura izan dot honen aldeko aldarrikapena egiteko. Arazoak daukazan jenteari aurrera egin behar dala esateko, ez etsitzeko. Eta "inork ez deizula esan ezin dozula egin" goiburua bota neban.

Arratian txirrindularitza egokitua ikusgai egin dozu.

Bai. Bisibilidade apur bat emon deusat. Ni txirrindularia naz, eta erakusten dot kirola egin ahal dala arazoak euki arren. Errugbi inklusiboa be egon da Igorreko jaietan. Bizitzan aurrera egin behar da, eta horretarako kirola oso ona da. Bururako oso ona da, baina gaixotasunen bat daukazunean, mobidutea be ona izaten da.

Zelango momentua bizi dabe



Oskar Garro.

kirol inklusiboak eta txirrindularitza egokituak?

Gero eta gehiago ikusten da. Jenteak onartuta dauka arazoak daukaguzan personak be egin

ahal dogula kirola. Eta kirolariok kirola profesionalizetan gagoz. Laguntza gehiago eskertuko litzateke. Azken finean, profesional moduan egiten dogu kirola.

Apurka-apurka aurrerantza doa, baina laguntzak bardindu egin behar dira egokitu bako kirol laguntzakaz. Guk desgaitasunen bat daukagunok, batzuetan ez daukagu laguntza bardinak, baina inplikazioa bardina da. Aldarrikapen hori egiten gabilz, bardindu egin behar dirala laguntzak eta sariak. Bidea luzea da.

Zuk zein gaixotasun daukazu?

Charcot-Marie-Tooth deitzean dan gaixotasun arraroa daukat jaiotzetik. Endekapenezko gaixotasuna da. 7 urte neukazanean hasi zan gaixotasuna igartzen. Hereditarioa izan arren, gure familiak ez dauka. Niri hau tokau jata eta honegaz bizi behar naz.

Noz hasi zinan bizikletan. Kontau apur bat zure ibilbidean.

Oin dala 11 urte gitxi gorabehera. Ordura arte Ilunbe enpresan egiten neban behar, baina lana itxi behar izan neban eta kirola egiten hasi nintzan, zeozer egin behar da eta. Ezintasuna emon eustenean hasi nintzan kirol baten bila eta betidanik gustau jatanaz bizikletea, txirrindularitza hasi nintzan. Saiatu Fundazioa topau neban Bilbon eta bizikletan ibilteko aukerea emon eusten. Hortik aurrera, urtero-urtero hobetuten joan nintzan eta gero, ikusi neban apur bat harago joan behar nintzala, profesionalizau-edo. Dedikazio osoa eskatzen dau.

Zeintzuk dira zure kirol ibilbidean izandako lorpen garrantzitsuenak?

Gehien kostau jatana izan zan Euskal Herriko Txapelketea 2016an eta 2017an. Horreek izan ziran gatxenak. Gero be Espainiako txapeldun izan naz hiru bider pistan, 2013, 2014 eta 2015ean uste dot. Atzenengo urteetan aurrea hartu deuskue beste selekzino batzuek. Abiadura lasterketan izan zan, Euskal Herriko 3 txirrindulari urtetan gara eta pistan egiten da. Lehiaketa desbardina da; ez da bidekoa, baina oso polita da.

Lorpen handia be izan zan,

Munduko Kopan laugarren egitea. Holandan egin neban, 2017an, munduko onenakaz lehian.

Ebakuntza bat egin deusue eta oingo denporaldian ezin izan zara lehiatu.

Hanka biak operau deustez hankak arteztuteko. Sano sensazio onak emon eustazan medikuak eta pentsau neban urtebete galduko dodala baina aurrera begiratu behar dala. Urte bat galdu baina akaso 40 urte irabazi, bizi kalidadea da eta.

Lehengo hankakaz bai, mol-datuten nintzan, baina ez dakizu minak noz hasiko diran edo... Eta topau neban Madrilen mediku oso on bat eta hanka bietako ebakuntza egin eustan batera. Zemendiaren 21ean izan zan, oin dala sei hilabete, eta oindino urtebete edo geratuten jata osatzeko.

Momentuz ondo?

Oso ondo. Aldaketa erradikala da. Hankapuntetan ibiltzen nintzan eta oin oinazpi osoagaz. Bizi kalidadea da eta lehen egin ezin neban gauza asko egin ahal dodaz oin. Edo zailtasunez egin ahal izan nebazanak, oin errazago egiten dodaz.

Osatutakoan bizikletea hartzeako asmoa? Noz arte?

Gorputzak esan arte ezin daukela gehiago. Helburu bat daukat: Munduko Txapelketa batera joatea eta ahaleginduko naz hemetik bi edo hiru urtera joaten. Hori da nire helburua eta ni buru gogorra naz. Horretarako Espainiako Selektzioan sartu behar naz.

Ez dakit ebakuntzaren ostean neure kalifikazioa aldatuko ete dan. Ni MC2n nago, zenbakiak ezgaitasun maila adierazoten dabe 1etik 5era, ezgaitasun handienetik, txikienera. Munduko Kopara joaten banaz egingo deuste kalifikazioa, berraztertuko deuste eta kategoriaz aldatu naiteke. Manteniduten badeuste 2an, aukerak izango dodaz, baina 3ra igoten badeuste ez dakit aukera handirik eukiko ete dodan Munduko Kopara joateko.

TRONTZEA

Eusko Label Sarian txapeldunorde izan da Ruth Linaza

Erredakzioa

Bagilaren 7an jokatu zan Azpeitian finala eta bertan, Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabako bikoterik onenak neurtu ziran. Araba ordezkatzan, Lemoako Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Urralde joan ziran. Txapelketea, Nafarroako bikoteak, Itsaso Onsalok eta Leire Astiazaranek osotukoak, irabazi eban.

Eusko Label Saria trontzan egiten diran txapelketarik garrantzitsuen artean dago. Izan be, herrialde bakoitzean kanporaketa bat egin ostean, herrialde bakoitzeko irabazleak jokatu eben Azpeitiko finala.

Finala

Finala oso estua izan zan. Linaza eta Lopez de Urraldek indartsu hasi eben 45 ontzako pago enborrari 10 ebagi egiteko lana. Onsalok eta Astiazaran nafarrak baina, sakonago sartzean eutsien trontzea pagoari eta aurrea har-

tu eta irabazi eutseen. Beharra amaituteko, Onsalok eta Astiazarrek 3 minutu eta 36 segundo behar izan ebezan; 12 segundo gehiago Linaza eta Lopez de Urraldek eta 4 minutu eta 28 segundo Karmele Gisasola Zelai III. ak eta Uxue Ansorregik.



Garbiñe Lopez de Urralde eta Ruth Linaza.

Akats zuzenketea

BEGITUREN bagilaren 4ko 319. zenbakian, 11. orrialdean, III. Izar Gazteak Txapelketearen gaineko informazioan, berba bat falta da. Lehenengo lerroan, "Zeberio eta Zaratakoko" ipinten dauan lekuan "Zeberio eta Zaratakoko frontoietan" ipini behar eban. Barkatu eragozpenak, akatsak sortu ahal izan dituan txarto urlertuakaitik.

JABEKUNTZA ESKOLEA

Ilgoran izena hartu dau Andren Jabekuntza Eskoleak

Erredakzioa

Ilgoran talde feministea 1975 inguruan sortu zan eta 1990eko hamarkadara arte, andren eskubideen alde egin eban burrukan Arratian. 1990ean aldizkari bat be sortu eban. Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak talde feminista horren izena izango dau. Holan, genealogia feministea aintzat hartuko dau eskoleak, eta izenagaz, eskoleari nortasuna emon, eta proiektua indartu eta sendotu gura da.

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea hazten doa. 2018-2019 ikasturtean, guztira, 104 andrak hartu eban parte eskoleak antolatutako ekintzetan. Aurreko ikasturtean baino 22 gehiagok.

Eskoleari izakera sendoagoa emoteko izena emotea izan da lehenengo pausua, baina ez da bakarria izango. Izenean oinarrituta, Torontilekoak logoa eta irudi korporatiboa diseinatu dabe gero, eta batzorde batek, proiektua, helburuak, funtzioak eta eskolearen egiturea definituko ditu dokumentu baten.

Izanak izena behar

Bagilaren 6an izenaren aukeraketa prozesuari amaierara emoteko batzorrera hurreratu ziranak, Ilgoran izena

aukeratu eban Andren Jabekuntza Eskolarako. 1970eko hamarkadan, 2019ko maiatzaren 8an hil zan Aurora Garcia "Pitu"k proposatu eutsen bere taldekideei sortu barri eban talde feministari Ilgoran izena ipintea. Aurorari egindako agurrean, orduko Ilgoranekoak gogora ekarri eban hori zera esanez: "eta izanak izena behar zuen, zeuk eman zeniguna: Ilgoran".

Izenak, bertako feminismoaren legadua pasatzeaz gainera, gaur egungo momentuari be egiten deutso erreferentzia. Izan be, atzenengo urteotan feminismoak gora egin dau eta Ilgoranek gorakada hori irudikatu ahal dauala uste dabe batzuek. "Niri, garapena dakart gogora" azaldu eban beste batek, begiradea etorkizunean ipiniz.

Holan, Arratiako feminismoaren aurreko sasoi, oingo momentua eta etorkizunerako proiektzioa batzeako gaitasuna daukan izena izango dau Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak.



ZINEKLUBA

Zineklubak *Call me by your name* arrakastatsua ekarriko dau Igorrera LGTBI Harrotasunaren egunaren bezperan

Erredakzioa

Bagilaren 27an, 20:00etan, Luca Guadagnino zuzendari italiarraren *Call me by your name* 2017ko filma ikusi ahal izango da Igorreko Lasarte Aretoan. Pelikula honek moldatutako gidoi onenari Oscar saria jaso eta arrakasta handia izan eban zine aretoetan. Gizon gazte biren amodiozko istorioa kontetan dau eta Igorreko Zineklubak LGTBI Harrotasunaren Nazinoarteko Egunaren bezperan proiektuauko dau.



tzuten, liburuak irakurten eta uger egiten emoten dau denporea, bere aitaren amerikar laguntzaile barria etxera heldu arte. Laguntzailea, Oliver, zoragarria da. Eliok legez jatorri judua dauka, eta gaztea da, bere buruaz segurua eta erakargarria. Hasikera baten, Elio apur bat hotz eta urrun azaltzen da, baina laster, txangoak egingo ditue alkarregaz eta, uda aurreratu ahala, alkarren arteko erakarpena areagotuko da.

Sinopsia

Eliok, 17 urteko gazte batek, bere gurasoak Italiako iparraldean daukien landa-etxe baten pasetan dau 1983ko uda bero eta eguzkitsua. Alferkerian, musikea en-

ARGAZKIAK

Herriko argazkien artxibo digitala sortu gura dau Areatzako Udalak

Erredakzioa

"Herriaren izaerea zein dan eta batez be zein izan dan" galdu ez daiten sortu gura dau Udalak argazki artxiboa. Hori dala-eta, herriarrai eskatzen deutse interes publikoa daukien argazkiak eroan dagiezala udaletxera digitalizatzeko. Irudiak digitalizatu eta artxibo baten gordeko ditu Udalak, aurrerantzean erakusketaren bat egin gura izan ezkeredo baten batek behar izan ezkeredo eskura eukiteko. Digitalizatuak, argazkiak jaubeai bueltauko



deutsez Udalak.

Argazkiak udaletxera eroan daitezke bagilaren 24ra arte papelezko euskarrian edo euskarri digitalean. Argazkiok euskarri digitalean badagoz emailez be bialdu daitezke areatzaargazkiak@gmail.com helbidera. Interes publiko daukien argazkiak papelezko euskarrian badagoz, argazkilari batek digitalizatuko ditu eta gero bueltauko jako jaubeai. Horretarako argazkiak ondo identifikatu egon behar dira, jaubearen izena, telefono zenbakia eta helbideagaz.

JAIK

Sanjuanak eta sanpedroak ospatuko ditue hainbat auzunetan

Erredakzioa

Beste leku askotan legez, Arratian be suak biztuten dira San Juan bezperako gauean udako solstizioa ospatuteko. Bedian eta Ubiden sanjuanetan izaten dira herriko jaiak eta herri horreetan plazan biztuko dabez suak. Jaietako ezinbesteko jarduerak da. Baina Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion be biztuko dabez suak eta herriarrai inguruan batuko dira, gauari eta bizitzari magia apur bat emon guran.

Arantzazun, sua 22:30ean biztuko dabe, baina arinago, 20:30ean, sardina jana egingo dabe plazan. Areatzan, 18:30ean hasiko dira San Juan bezperak ospatuten, plazan egingo daben Cía. Barsantiren *Kale gorrian* antzezlanagaz. Ondoren, 20:00etan, sardina jana Zubizarran eta gero, sua biztuko dabe tradizioak aginduten dauan lez. Lemoako Tallerretan, 21:00etan biztuko dabe sua eta parrilladea be egingo dabe. Aurretik, 19:00etan, umeentzako ekintzak egongo dira eta 20:00etan, musika zuzenean Lanbroa taldeagaz.

Igorreko San Juan auzunean, Dimako Oban eta Zeanuriko Altuagan be sanjuanak ospatuko dabez. Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

Altuaga (Zeanuri)

Bagilak 22, zapatua

15:00etan, txupinazoa.

21:00etan, auzo afaria trikitilariakaz.



Bagilak 23, domekea

12:00etan, mezea eta barauskarria.

12:30ean, jantzariak, bertsolariak eta zozketea.

18:00etan, Bola Txapelketea eta umeentzako jolasak.

21:00etan, sardinak, txarriak, hirugiharra eta txokolatea.

22:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, astelehena

12:00etan, mezea, barauskarria eta trikitilariak.

Jaien amaierara.

San Juan (Igorre)

Bagilak 23, domekea

19:30ean, jaien hasikerea, txupinazoa eta sardina jana.

20:00etatik 21:00etara, Ardoa barrura txarangea.

21:30etik 22:30era, su artifizialak.

Bagilak 24, astelehena

12:00etan, mezea eta ondoren trikitilariak.

Undurraga (Zeanuri)

Bagilak 28, barikua

21:00etan, afaria Txatonean. Ondoren DJ Zirkin.

Bagilak 29, zapatua

08:00etan, kalejirek auzoan zehar.

11:00etan, mezea eta Angel Mari Peñagarikano bertsolaria. Ondoren barauskarria herriko txistulariak gitoruta.

13:30ean, bolalekuaren inaugurazioa eta poteoa Txatonean.

19:00etan, Kantu Kolore.

20:30ean, txitxi-burruntzia eta disko festa.

Bagilak 30, domekea

12:00etan, Tortilla Txapelketea.

13:30ean, poteoa Txatonean.

17:00etan, umeentzako puzgarriak.

18:00etan, Undurragako I. Bola Joko Txapelketea. Txapel eta Igel jaurtiketea.

20:00etan, zozketea eta txokolatea.

LEHIAKETEAK

Balkoietako loren edertasuna sarituko dau Zeanurik



Kartela.

Erredakzioa

Pisu eta Etxeetako Balkoietako Lora Txapelketa antolatu dau Zeanuriko Kultur Batzordeak, herriko balkoiei eta etxe baka- rretako eskilarai "bizia emon, edertasunez josi eta herri inguru- a zainduz, ekarpen artistikoak egin eta ingurugiroa hobetuteko". Hori dala eta, pisu eta etxeo balkoi politenak 200 euroko sari bana izango dabe. Ehun euroko bigar- ren sari bi be egongo dira.

Epaimahaikideak abisau barik pasauko dira etxeak ikusten, gara- garrilaren 1etik abuztuaren 10era arte. Txapelketan herriko etxe eta pisu guztiak begiratuko dira. Zea- nuriko Kultur Batzordeko kideak eta gai honetan aditua dan batek osotuko dabe epaimahaia. Andra Mari jaien egitarauaren barruan egingo da sari banaketea. Argazki erakusketea be egingo dabe.

JAIA

Metal jaia Zeberion hilaren 22an

Erredakzioa

Auritz, Budasam, Huts, Ready Aim Fire eta Sinmas taldeak, kontzer- tuak joko dabez bagilaren 22an, arrastiko 17:30etik goizaldeko ordu txikiak arte, Zeberiometaletako aur- tengo edizinoan. Lehenago, Mikel Bizar Auritz taldeko abeslariak kon- zertu akustikoa eskainiko dau.

Baina metal jaigiroak egun osoan hartuko dau Zeberio. Izan be, goizetik hasiko da metalaren jaia. Kontzertuez gainera, argazki lehiaketea, umeentzako jolasak eta paella lehiaketea be egongo dira.

Egitaraua

11:00etan, Argazki Lehiaketarako

izen emotea eta hasikerea.

12:00etan, umeentzako jolasak eta Paella Lehiaketea.

13:00etan, Mikel Bizar akustikoan.

14:30ean, paellen aurkezpena eta sari banaketea.

17:00etatik aurrera, kontzertuak:

17:30ean, Sinmas; 19:00etan, Ready Aim Fire; 20:30ean, Huts;

22:00etan, Auritz; 24:00etan, Buda- sam eta 02:00etan, DJ Rober Metal.



LEHIAKETEAK

Jaietako Kartel Lehiaketea

Erredakzioa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak 2019ko Sandoniak eta jaietako umeen ekintzak iragar- teko kartel lehiaketak antolatu dabez. Lanak bagilaren 28ra arte aurkeztu daitezke udaletxean.

Jaietako Kartel Lehiaketea "Berdintasunerantz Bideratuz"

programearen barruan dago. Kar- telean ondorengo testua agertu behar da derrigor: "Zeberioko Sandoniak 2019. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra". Egile bako- txak gehienez lan bi aurkeztu ahal izango ditu. Irabazleak 70 euro jasoko ditu sarizat eta bigarrenak 30 euro.

Umeen ekintzetako Kartel Lehiaketako derrigorrezko tes- tua honako hau da: "Sandoniak 2019. Umeen ekintzak". 14 urte- ra arteko umeak hartu ahal dabe parte. Partaide bakoetak oparixto bat jasoko dau.

GAZTETXEA

Zeberioko Gazte Asanbladak laugarren urteurrena ospatuko dau

Erredakzioa

Lau urte dira Zeberioko Gazte Asanbladea sortu zala, modu autogestionaduan, herritarrai zu- zendutako ekintzak antolatuteko. Hori dala-eta, alkartu egingo dira urteurrena jaigiroan ospatuteko. Bagilaren 20an, 17:00etan izan-



go da hitzordua poteoa egiteko, eta ondoren, 18:30ean brindisa egingo dabe.

LEHIAKETEAK

Ermuko Jon Idigorasek irabazi dau Zeanuriko aire zabaleko pintura lehiaketea

Erredakzioa

Hamasei pintore, 9 nagusi eta 7 ume, ibili ziran Zeanuri eta ingu- ruko paisajeak pintetan bagilaren 9an, Udalak antolatutako Aire Za- baleko Lehen Margolan Lehiake- tan. Jon Idigoras Ermukoak Saga- rako baserria margotu eta irabazi eban saria. Publikoaren saria bar- riz, Iker Mugarra Zeberiokoak jaso eban, errekearen inguruak erakus- ten dauzan margolanagaitik.

Udaletik balorazino positiboa egin dabe eta datorren urtean

lehiaketearen bigarren edizinoa antolatuteko asmoa agertu dabe.



DUNBA

Areatzako eskolako bigarren zikloko ikasleak Lemoizen

Areatzako eskolako bigarren zikloko ikasleak, Lemoizko Euskal Girozte Barnetegira joan ginan lau egunez, jolastuz eta ekintza desbardinak eginaz, euskeraz biziteko aukera zoragarria izan genduan.

Areatzako eskolako LH2ko ikasleak, "Danok bat" taldea

Eskolako ikasleak maiatzaren 6tik 9ra Lemoizko Euskal Girozte Bar- netegian egon ginan. Lemoizko Euskal Girozte Barnetegia Le- moizko Andra auzoan dago, Gorliz eta Plentziako herrigunee- tatik bi edo hiru kilometrotara (Goikomendi baserrian). Oin dala gitxi barrizutako baserria da. Bertan, barnetegiko logelak, sui- tea, jangela eta geuk erabilteko gelak egoteaz gainera, kanpoan,

zelai ederrak dagoz. Zalditegi bat be badago, eta aukerea izan gen- duan zaldiak ezetuteko eta zaldi gainean ibilteko.

Jolasak, jantza, txangoak eta ekintza dibertigarriak euskeraz egin genduzan. Inguruan baloia- gaz olgetako, skateagaz ibilteko, harrapaketan, futbolinean olge- tako... leku ederra dago.

Goikomendiko baserri- tik, Gorliz eta Plentziako badia hur dagozanez, hondartzara dagoan 4 kilometrotako ibilbidea egin genduan, paisaje zoragarriak eta



natureagaz kontaktuan egoteko aukera aproposa izan zan. Gorli- zeko hondartzan be, uragaz eta harea edo hondarragaz jolasteko aukerea izan genduan, primeran pasau genduan!

Areatzako ikasleok eta irakas- leak egun eder, zoragarri eta di- bertigarriak pasau genduzan: bar- netegian lagunak jolastuz, talde handian zein txikerretan alkarlana eginaz, euskeraz berba eginaz, hizkuntza aberastuz eta gauza barriak deskubriduz eta ikasiz.

Mundiala izan da!!



AKIKMIKO

Zorrozkiio

maitasuna
adierazpen
askatasuna
gu asko

Kritiko Zuek aske hura
gara
euskaletan
burujabe haiek aniztasuna

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

DANERIK

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri

baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m² eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Lur antezlanerako.**

Simon Urigoitia (Artea)
Roberto Salazar (Igorre)



2 Zertu Kultur Elkarteak emondako BEGITUREN kamisetea.

Aitziber Milikua (Areatza)
Mertxe Ortuzar (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 678 64 25

begitu
anaitza atxiki ezberri

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n. 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 600 482 530 • 600 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO


Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Calle, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

